

LUZARRERAKIN
Eneko Olasagasti

EKOIZLEA ETA ZINEMAGILEA

Zergatik ez poztu?

S

entsazio kontrajarriz beteta hasi behar dut ARGIArako eskatu didaten artikulu sortaren lehena. Berriz ere kontu berdina errepikatzen ez ote natorren ezin burutik kendu. Eta era berean, berriro

ere gauza bera errepikatzearen beharraz kontentzitatea nator. Ez baitira herri honetako instituzioak ezer egiteko asmotik aurrerago joan. Azken lorpenak haien gogoaren kontra-koak direla ematen du. Agian horrexegatik haien berri emateko hain ahalegin gutxi.

Lehen lorpenak ETBekin du zerikusia eta data 2006ko azarokoa du. Ikus-entzunezkoak aipatzen zituen ez-legezko proposamen bat tarteko. Hari esker Jaurlaritzak onartu egiten zuen ETBk ez zuela ordura arte bete Europako Mugarik gabeko Telebistaren legeak agintzen zuena. Hau da, bere aurrekontuaren %5 ikus-entzunezko ekoizpenetan inbertitzea. Eta hau ez da gertatu Kultur Sailaren borondatea hori delako, baizik eta Zinema Plataformak (gidoilariak, produktoreak, aktoreak eta errealizatzaileak) Legebiltzarrean biltzen diren alderdiekin egindako lanak eta salaketak bultzatuta. Behartuta sentitu dira eta hori ez dute oso gustukoa izan. ETBn kontentutu beharko lukete, beti esan izan baitute haiek ez zeukatela horrelako egitasmoa aurrera ateratzeko nahikoa aurrekonturik. Orain diru hori Lakuak ipiniko du. Beraz ETBk urtean bost bat milioi euro gehiago izango ditu arloan inbertitzeko.

Baina Iurretako korridoretan poza ez da nagusi zalantza baizik. Zergatik ote? Ez al dira fio? Egia esan, lerro hauek idazterakoan ETBk oraindik ez du komunikazio ofizia-



INES URRUTIA

lik jaso. Telefono dei bat bai. Garbi dago Lakua eta Iurretaren arteko komunikazioa ez dela oso zuzena. Urkiola mendate bat baino zerbait gehiago al da ba? Euskal Telebistak behar omen zuen ikus-entzunezko arloaren motorea. Liburu Zuriak dixit. Erregaia izango du hemendik aurrera. Baina nago ez dagoela autoa gidatzeko borondate eta gogo handirik.

Bigarren lorpenak, eragile eta lagin berdinak dauzka, zinema plataforma, eta dirulaguntzen aurrekontuarekin du zerikusia. Euskal zinea entzutetsua zen garaietatik –laurogeitatik– hona aurrekontuak ez du aldaketarik izan. Garbi gelditzen da egitasmoek zerikusi gehiago dutela pertsonekin politika eta programa zehatzekin baino. Garai haietan Joseba Arregik zaletasun bereziren bat edo lagun-minen bat edukiko zuen egin zituen politikak bultzatzeko. Pertsonak desagertzen direnean politikak aldatzen dira. Horrek politika eza nabarmen erakusten du. Garai haietatik hona ez zen partidarik ukitu eta KPIaren aplikazioa eskatzen zen. Eta kasu honetan ere ezin guztizko arrazoia eman eta eskatutakoaren, gutxi gorabehera, %80 eman da. Hala ere, bada dirua. Ia bikoiztu egingo baita aurrekontua.

Nik esango nuke badirela pozik egoteko moduko bi berri. Zergatik ez da ba prentsaurreko ponposo bat antolatu egingo diren inbertsioen aldarrikapen zaratatsua egiteko? Zergatik horrelako utzikeriarik? Ez delako haiengandik sortu? Gogoz kontra egin dutelako? Benetan nahi al da ikus-entzunezko arlo indartsu bat izan? Non gelditzen dira hainbeste Plan estrategiko, Film Comission, Liburu Zuria, Kulturaren Euskal Plana? Interesatzen al da benetan arloa? Edo beste batzuetan bezala, oraingoan Etxepare Euskal Institutua ikur bihurtuta gainontzekoa bazterrerera kondenaturik geratu behar al da? ■

«
Euskal Telebistak behar omen zuen ikus-entzunezko arloaren motorea.
Liburu Zuriak dixit. Erregaia izango du hemendik aurrera. Baina nago ez dagoela autoa gidatzeko borondate eta gogo handirik
»

